HAMABOSKARIA - 2005eko martxoaren 18a - X. urtea - Usurbil, 201. zenbakia

www.noaua.com

# N u !



Sakabanaketaren aurkako ibilaldia, martxoaren 20an



## Aitor Egileta

# Munduari itzulia ematen




herrikoa, atsegina,
hunkigarria, ezinbestekoa
Usurbilgo Baserriak
eta Baserritarrak
ESKURA EZAZU!
Zumeta jatetxea
Alamandegi jatetxea
Noaua Kultur Elkartea
PREZIOA: 33 EURO (BAZKIDEEK NOAUA! KULTUR ELKARTEAN 25 EUROTAN)


USURBILGO
HAUR ESKOLA
HAUR HEZKUNTZARAKO 1. ZIKLOA
0-3 URTE BITARTEKO HAURREI ZUZENDUA
NON
Kalexarren
ORDUTEGIA
7.30-19.00
EGUTEGIA
astelehenetik ostiralera
Irailaren hasieratik Uztaila bukaera arte
INFORMAZIOA ETA IZENEMATEA
Martxoaren 8tik apirilaren 29ra
telefonoa 943 374 061
OSASUN HEZIKETA
ZERBITZU PEDAGOGIKOA
GURASO ESKOLA
JANTOKIA
ELIKADURA EKOLOGIKOA
EKIMEN BEREZIAK

## Txirrikitutik !

Martxoaren 15etik 26ra euskal preso politikoak gose greban sartuko omen dira beraien estatus politikoa onar dezaten exijituz. Gose greba honetan Xabier, Ramon, Patxi, Jokin, Oihana, Joxe Domingo eta Martin usurbildar presoek ere parte hartuko dute seguru asko. Euskal Herrian horrelako ekintzak ez dira berriak, ez orain eta ez lehen ere. Duela 16 urte inguru ere gaur egun jasaten dugun egoera berbera bizi genuen, ikusi besterik ez duzue argazkia. 1989ko irailaren 29an Usurbilgo Herri Batasuneko hautetsiek euskal presoen sakabanaketa salatzeko udaletxean itxialdia egin zuten. Guztiek soinean kartelak jantzita ageri dira lema ezberdinekin: Errepresiorik ez, Presoekin batera borrokan, Jaiak bai borroka ere bai, Dispertsiorik ez.... Eraberritzen ari ziren udaletxean ageri den pankarta ere esanguratsua da. Gaur egun udaletxean dagoen politikoren bat herriko presoen eskubideen aldeko itxialdia egiteko prest izango ote da?

**Zaloa Arnaiz Ibarguren**




Egilea: Ezezaguna, 1989.09.29, Kaleberri

Jabea: NOAUA! Kultur Elkartea

N u !

**Argitaratzailea**: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com
www.noaua.com

**Koordinatzailea:** Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

**Publizitatea:** publizitatea@noaua.com

**Kolaboratzaileak:** Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbieta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

**Bazkidetza:** Aitziber Aranberri.

**Erredakzio Kontseilua:** Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Maialen Saez, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

**Informatika**: Topaguneko informatika zerbitzua.

**Banaketa**: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

**Elektrikaria:** Iñaki Salsamendi.

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96 - **ISSN:** 1136-6818
**Inprimategia:** Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

***NOAUA!* Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:**
**10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan**

**AZALA**
**Aitor Egileta, Galapago irletako itsas lehoien artean.**

# Aurkibidea

ZUTABEAN, LUIS ARANALDE ____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN ____ 6. ORR.

ALKATEAREKIN SOLASEAN ____ 10. ORR.

Luismari Ormaetxea alkatearekin batera, pil-pilean diren hainbat gai aztertu ditugu. Tartean, Ugarte baserriaren inguruko auzia.



AITOR EGILETAREN ABENTURA ____ 12. ORR.

200 ALEKO OSPAKIZUNEN IRUDIAK ____ 14. ORR.

ESPETXEA, MARTUTENETIK ZUBIETARA ____ 18. ORR.

AGENDAKO EKITALDI AIPAGARRIENAK ____ 22. ORR.

Usurbilgo Udala

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak
Euskal Herrira!

## Zutabea !



LUIS ARANALDE

# Nire heroia

Egun hauetan idazki polit batekin topo egin dut; Jesus nazaretarrari buruz, hain zuzen. Ez da teologo batek idatzia, Audientzia Nazionaleko magistratu batek baizik: Margarita Robles. Bere saiotxoaren izenburua: "Mi héroe". Aste Santuaren atarian gaudela eta, interesgarria iruditu zait bere testigutzaren berri ematea.

"Nik gehien miresten dudan pertsonaia historikoa Jesus da", dio hasieran. Zergatik? "Berak enkarnatzen ditu ondoen hain garrantzitsuak diren balore batzuk: maitasuna, eskuzabaltasuna, solidaritatea, bakea, gizakion berdintasuna". Eta bukatzen du: "Jesus da nire erreferentzi puntu nagusia gizarte egokiago baten alde borrokatzeko orduan".

Ebanjelioa inongo aurriritzirik gabe irakurtzen duenak erraz aurkituko du bertan Jesusen erretratu hori. Ez dago zalantzarik aitzindari eta iraultzaile izan zela. Zertan?

Jainko gertukoa iragarri zuen. Bere garaiko erlijio ofizialak urrutiko Jainkoa eta elitista aldarrikatzen zuen: aberatsen eta boteretsuen lagun zen; jende txiroa, gaixoak, ezinduak..., ezin ziren hurbildu hain ahalguztiduna zenarengana. Jesus, aldiz, Jainko Aitaz mintzatzen da, gizaki ororen lagun eta batez ere agintari erlijioso satisfetxo haiek mesprezatzen zituztenena. Parabola dotore askoak badaude Itun Berrian ideia horren adierazgarri.

Benetako erlijiotasunaren bultzatzailea. "Iritsi da ordua, dio, ez Garizim mendi sakratuan, ez Jerusalemgo tenpluan Jainkoa adoratuko ez duzuena. Egiazko adoratzaileek, Jainkoa egiaz eta espirituaz adoratuko dute". Benetako jainkozaleak egia, zuzentasuna eta maitasun bideetan aurkituko dute bila dabiltzan Jainko misteriotsu hori, eta ez tenpluetan eta mendi sakratuetan. Horrek ez du esan nahi, noski, elizak eta leku sakratuak ezertarako balio ez dutenik; egiazko kultua bihotzean ematen dela, baizik.

Emakumearen duintasuna defendatu zuen. Atzo entzuten nuen: Iran-en emakumeak gizonezkoaren erdia balio omen du. Indian ere, zorigaitza omen da emakume jaiotzea. Gure elizaren hierarkia eta gizartea ere matxistak ditugu. Gezurra dirudi: bi mila urte igaro ondoren ez ikastea.

Erlijio zapaltzaile eta alienatzaile hura gogor salatu zuen. Apaizek negozio borobil bihurtu zuten garai hartako kultu: erreopariak, ofrendak, hamarrenak... Dena jende soilaren ezjakintasunaz aprobetxatuaz bizitzeko bidea. Jesusek librea izan nahi zuen eta ekintza liberatzaileak burutu zituen. Horregatik hil zuten. Baina, garbi utzi zien bere jarraitzaileei: solidaritatea, gertutasun, maitasun ekintza horiek ez dituela heriotzak hilko, betikotasunaren hazi direla baizik.

A. Camus, Nobel saria literaturan eta pentsatzaile ospetsuak esaten zuen: "Nik ez dut sinesten berpizkundean, baina, Jesusen mezua eta irudiak guztiz hunkitzen naute. Mirespena eta benerazioa besterik ez dut sentitzen bere aurrean"

Xabier Letek zioen duela egun batzuk: "Nazareteko Jesus erabat funtsezkoa da gizadiaren historian, antzinako gizarteetan ohikoak ez ziren baloreak –errukia, barkamena, pobreziaren gorespena- lehen tokian jarri zituelako. Jesusen dotrina ederra eta izugarria da. Ederra bere gizatasun errukitsuan eta izugarria exijentzia erradikalean".

Jarri dizuet gogoetarako nahiko gai. Pazko aldi zoriontsua opa dizuet.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - **Luis Aranalde** - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

## Ika-mika !

# Presoak borrokan

Aurreko hilabetean, aldizkari honetan irakur zitekeen, euskal preso politikoak borrokan daudela joan den urtarrilaren 3az geroztik. Egun hartan egin zuten planto orokorrarekin borroka-dinamika iraunkor bati ekin zioten. Bi ardatz nagusi ditu borroka horrek: lehena Euskal Herriratzea exijitzea eta, bigarrena, beren izaera politikoa aitortzea. Eskaera horiekin, 10 eguneko «txapeoak» edo itxialdiak egin dituzte txandaka. Joxe Domingo Aizpurua, Patxi Segurola, Xabier Aranburu, Karlos Martin, Oihana Lizaso, Jokin Errasti eta Ramon Uribe usurbildarrak ere, protesta hori egin dute, hurrenez hurren, espetxeetako egoera gero eta ankerragoa salatzeko eta euskal herritar gisa zein gatazkaren konponbide demokratikoan eragile eta partaide izateko duten eskubidea eskatzeko. Orain, berriz, beren borroka beste fase batean sartuko da datorren asteartean, martxoak 15, espetxe guztietan hasiko duten gose grebarekin.

Honen guztiaren inguruan dagoen ixiltasun maltzurrari aurre egiteko, haien garraxia espetxeetatik irteten lagundu dezakezu zeuk ere. Hona hemen aukera batzuk datozen egunetarako:

- Martxoaren 18an, ostirala: kontzentrazioa Usurbilen, arratsaldeko 8etan.
- Martxoaren 19an, larunbata: Parisko Fleury-Merogis espetxera martxa (autobusa antolatuko da. Diru arazoa dutenek, borondatea).
- Martxoaren 20an, igandea: eskualdeko mendi-martxa Oriotik Lasarte-Oriara. Usurbildik goizeko 11:00etan igaroko da eguerdi aldera Teresategira heltzeko.

**Usurbilgo Etxerat!, Askatasuna, Gure Artera Bilgunea**

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, **NOAUA!**k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.
**NOAUA!**k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
**Hurrengo alea**: Apirilak 1. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** Martxoak 23.

## Jakoba Errekondo, Aukera Guztiak ekimeneko kidea:

# "Gurea bezalako zerrenda legez kanpo uztea ikaragarria litzateke"

**Aukera Guztiak ekimeneko sustatzaileetako bat izan da Jakoba Errekondo. Eskubide zibil eta politikoen murrizketa urruti iritsi dela uste duelako murgildu da saltsa honetan. Zeregin ugari ditu bestela ere, gustagarriagoak seguruen. Baina bizi dugun egoeraren aurreran, "ezin ezetz esan horrelako ekimen bati".**

**NOAUA! Noiz eta nola osatu zen Aukera Guztiak herri ekimena? Zeintzuk izan ziren hautesle-elkartea osatzeko arrazoi nagusiak?**

**Jakoba Errekondo.** Espainiarren panoramaren aurrean, eskubideen murrizketa urruti iristen ari dela uste dugu. Azkenean, ez dakit, tabernetara ere ezingo dugu sartu. Horren aurrean, taldeko batzuk proposamen bat egin genuen eta horrela osatu zen Aukera Guztiak. Ez genuen talde handi bat sortzeko denbora gehiegirik izan. Hori da guztia.

**N. Baten batek harrituta ikusiko zuen zure izena herri ekimen horren baitan. Normalean ez zara politika munduan nabarmendu.**

**J. E.** Egia esan, nik nahiago dut horrelakoetan ez ibiltzea. Badaukat, bestela ere, zereginik. Baina horrelako ekimen bati ezin diozu ezetz esan. Egia da, politikan ez naiz inoiz ibili. Eta hau ekimen politiko bat da; baina jende ezberdina eta arlo ezberdinetan dabilen jendea bildu nahi zen. Sortu zenean, kulturan dabilen jendea bildu nahi zen, oinarrizko eskubideetaz hitz egiten ari garelako.

**N. Aukera Guztiak osatu zenean, programarik ez duen herri ekimen gisa aurkeztu zen. Baina askok ez dute ulertu. Programarik gabeko aukera izango al da?**

**J. E.** Egoera salatzeko zerrenda bat osatzea izan da gure proposamena. Hasieran, ez genekien jendeak erantzungo ote zuen ala ez, zerrenda osatuko zen ala ez… Programa politikorik ez zegoen. Hautatu batzuk badaude, jende horrek lan egin dezala oinarrizko eskubide zibil eta politikoen alde. Horien falta salatzeko, batez ere.

**N. Eserlekuak hutsik utziko dituen proposamena izango al da?**

**J. E.** Egia esan, ez dakigu ze jarrera hartuko den. Baten bat hautatua ateratzen bada, haren bueltan erabaki beharko da. (Zerrenden aurkezpenean, ordea, eserlekuak beteko dituztela adierazi zuen Marije Rodriguez de Lerak, Aukera Guztiak-en bozeramaileak).

**N. Legez kanpo uzteko arriskuaz zer diozu. Horren jabe al zarete?**

**J. E.** Beste edozein zerrenda bezalaxe. Alderdien Legea hor dago.

**N. Horren beldur al zarete?**

**J. E.** Beldur hori mundu guztiak dauka. Arzallusek berak ere bere garaian azaldu zuen: "egunen batean gu ere ilegalizatuko gaituzte".



ESKUBIDEEN MURRIZKETA URRUTI IRITSI DELA USTE DU JAKOBA ERREKONDOK.

**N. Baina zer gertatuko da zure ustez?**

**J. E.** Nire ustez, Aukera Guztiak ez dute legez kanpo utziko. Oso zaila izango dute hori arrazoitzea. Gurea bezalako zerrenda bat legez kanpo uztea ikaragarria litzateke. Beste gauza bat da alderdi bakoitzari, epaile bakoitzari... ze komeni zaion.

**N. Sinadura bilketa uste baino mantsoago joan zen. Bizi dugun egoera sozio-politikoaren ondorio izan zen ala jendeak, akaso, ez zuen oso argi ulertu zer sinatu behar zuen.**

**J. E.** Korrika eta presaka, huates garaian sortutako ekimena izan da. Ez dago programa politiko bat, periodikuan argi eta garbi jarri daiteken gauza bat. Gu oso gauza txikia gara, ez dugu ikaragarrizko azpiegiturarik izan, eguraldiak ez zuen lagundu...


TXIRIBOGA
TABERNA
ntx k, k t k
t l t r k n n tu k
Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98


txirriStra
TABERNA
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak
Kontseju zaharra, 13
Telf: 943 36 04 66



Txokoalde

IMANOL GOENAGA

# Trenbidea, lur azpira



Negu siberiar hau jada iragan dela esan digute, eta udaberria ate joka dugun honetan, eskertzen dugu benetan eguzki izpiek darioten berotasun goxoa, gure auzo honetan azken hauek nahiko garesti egon baitira.

Udaberriak ongi etorri gozoena Korrikarekin egin digu. Duela bi urte bezala, eguzkirik eta ia argirik gabekoa izan da, baina sentimenduz argiturikoa, abiada bizian pasa da aurtengo Aek-ren korrika hau.

Abiada bizian pasatzen da gaur egun ere trena gure auzotik. Baina, azken NOAUA!n esanda bezala, urte batzuk barru, historiara, edo hobe esanda, lur azpira joango zaigu trenbidea eta berak dakarzkigun arazoak. Ziurrenik, hilabete gogor batzuk izango ditugu proiektu hori gauzatzen deneko aldi horretan, baina espero dugu merezi izango duela etorkizuneko onurei begira. Hori bai, eskertuko genuke azalpen argiago bat trenbidearen ibilbideari buruz, auzo honetan nondik sartu eta iragango den zehatz mehatz argi azalduz. Azkenik, seguruak izango direla espero dugu lurrazpiko zulaketa horiek. Badaezpada ere, egun ikusten diren gertakizunen harian egiten dugu hausnarketa hau.

Besterik gabe, Akerrako kideen eskutik agur bat auzotar eta herritar guztiei.



Kaleberri

ANA URDANGARIN

# Usurbilgo kontu zaharrak gogoratuz



Aspaldiko kontuak gogora ekartzeak, herria aberastea esan nahi du. Herritar askok eta askok, nere moduan, agureei entzun edota beste norbaitek kontaturiko istoriak entzunak ditugu. Izan ere, gure herri hau hainbat gertakizunez osatzen baita. Baina oraingo honetan ez gara entzunarekin bakarrik konformatuko; jadanik jakingo duzuen bezala herri antzerki bat prestatzen ari gara hainbat usurbildarren artean, eta istorio hauek gogora ekartzen saiatuko gara antzezpen baten bidez.

Beti dago herrian jendea honelakoak antolatzeko prest, eta oraingo honetan, eskerrak eman behar dizkiegu, Isabel Agirresarobe, Iñaki Agirresarobe eta Ibai Esoaini, beraien artean egin baitute gidoia.

Entsaioak dagoeneko martxan jarriak dira eta ederki asko pasatzen dugu; oso berezia izango da. Batzuentzat, lehengo garaiak biziberritzea izango da; eta beste askok, gauzak nola izan ziren jakingo dute, baina beti ere umore puntu batekin.

Honelakoak gehiagotan egin beharko lirateke baina sekulako lana suposatzen du, beharrezko jantziak egitea, eszenatokia apaintzea, jendea mugitzea... ez da erraza!

Hala eta guztiz ere, gure herrian aurrera dijoanez, hemendik aurrera gehiago egingo direlakoan nago, ni behintzat oso animatua nago!

Beste bat arte, ondo izan!

# Espaloi berriak Ugarteko aldapan

Kalezar

ANDONI UDABE

Kaixo NOAUA! zaleok. Oraingo honetan eskaera berri bat egiteko aprobetxatu nahi dut kronika hau. Aspaldian, Kalezarren jarri diguten Haurtzaindegiak kronika ugari bete ditu eta oraingo honetan, zeharka bada ere, horrela izango da. Auzotar batzuen nahiari jaramon eginez, Ugarteko aldapan espaloi berriak jartzea eskatu nahi nuke. Gaur egun guraso ugari dira euren seme alabak ume-kotxean hartuta aldapa honetan gora eta behera ibili ohi direnak, eta umeak haurtzaindegira eramateko bide honetan espaloiak dituzte faltan. Frontoi txiki aldetik, Iparralde etxetik hasita, bada bat, baina nahiko estua da; oinezkoentzat ez dago hain gaizki, baina ume kotxearekin joan behar duenarentzat ez dago lekurik. Horrela bada, bidean barrena egin behar izaten dute ibilbidea, eta errepide honetan ibiltzen den kotxe trafikoarekin ez da broma, gero!



Horrenbestez, kronika hau entzun behar dutenen belarrietara iritsiko balitz, gustora ginateke.

Batzuetan kontatu, bestetan galdetu, edo kexatu. Oraingoan berriz eskatu. Zer egingo diogu ba?

# Bordatxo

Atxegalde

JONE EIZMENDI

Bordatxo, izen polita, berezia, izen gozoa, Bordatxo edaritegia, usurbildarrontzat oso berezia, kaxkoa, errotonda. Bestalde, garai batean Iñaki Eizmendi "Baxarrik" idatzi edo irratian erabiltzen zuen izenburua: "Nere Bordatxotik".

Gauz asko oroitzen ditugu Bordatxo izenarekin. Hala ere, nere helburua Bordatxo mendiari buruz hitzegitea da gaurko kronikan.

Usurbilgo mendi kaxko bat dugu, oso leku politean kokatua. Hego aldera begiratzen badugu, mendi asko ikusiko ditugu: Ernio, Andatza, Buruntza, Adarra, Larrun, Aiako Harriak… Horrez gain, Usurbilgo herria eta auzo denak eta Lasarte-Oria inguru osoa. Ipar aldetik begiratuta, berriz, Kukuharri, Mendizorrotz, Igeldo, Donostialdea, itsasoa barne.

Beraz, bista zoragarriak dituen mendi kaxkoa dugu. Bertan gurutze bat dago, puntan ikurriña bat duela. Baina tamalez, ia-ia ez da ezertxo ere ikusten, pinuz inguratuta dagoelako bi aldeetatik. Askotxo eskatzea ez balitz, inguru hori garbiago egotea eskatuko nuke, bai jabearen aldetik



eta baita ere herritarren edo udaletxearen aldetik.

Berez, bidea gabi eta txukuna dago edonor igotzeko. Gainera, gure auzo honetatik edo kaxkotik igotzeko ez dago hain urruti; Arratzaingo buelta edozeinek egiten duenez, Borda etxearen ondotik ordu laurden bateko bidea dago gutxi gorabehera eta merezi du gehiago ezagutzea. Ea denon artean zerbait lortzen dugun. Hurrena arte.

Santuenea



AGUSTIN ESNAOLA

# Auzotarren izpiritualtasunaz

Auzotar talde handi batek izpirituaren zaintzan dabil. Yoga da bidea eta teknika. Garai batean, Indiako herrialdean, hinduek eta budistek, asmatutako teknika bat da. Gorputzaren erritmoen eta arnasketaren kontrolean oinarritzen da. Yogaren helburua, izpirituaren perfekzioa eta transzendentziarekin lotura lortzea da.

Auzotar talde honen izpiritualtasuna handia izango da garizuma garai honetan. Garizuma, Kristauak Aste Santurako prestatzeko erabiltzen duten garaia da, hau da, berrogei eguneko epealdia, prestatzeko epea. Hauen metodologia arruntagoak dira, barauraldiak egitea, otoitzaldiak entzutera joatea, adiskidetzeko sakramentua jasotzera joatea, penitentzia egitea, etabar. Azkenik, Jesukristok basamortuan egin zuen barauldiaren oroitzapena egitea.

Garaiaren aldaketa ikusten da gure auzoan. Alde batetik, yogaren bidez izpiritua zaintzen dutenak eta bestetik barauraldiak eta penitentzia eginez izpiritua zaintzen dutenak. Bi era erlijiotasuna bizitzeko. Biak onargarriak eta biak onak, helburu honetara eramaten bagaituzte.

Askotan entzun dugu, "erlijioak ez dauka zentzurik gaurko egun hauetan". Orain ordea, ez da bakarrik gure auzoan gertatzen, jendea zerbaiten bila badabil, bakoitzaren inguruan aurkitzen ez duen zerbaiten bila dabil. Esperientzi erlijiosoen bila dabil, agian zuzenki erlijiosoak deitu gabe, baina on egingo dien esperientzien bila dabil.

Esperientzi txiki hauek onak izan daitezke, gure auzoaren elkarbizitzarako, elkarkidetzarako eta beste hainbat baloreetarako. Izpiritualtasunak baloreetara eraman behar gaitu, zoriontsuagoak izatera eraman behar gaituelako. Bakoitzak aurkitu beharko du bere bidea, hinduismoaren eta budismoaren teknika den yogarekin, Kristautasuna erlijioarekin, edo beste zerbaitekin, baina bideak onak dira gauza onak aurkitzera eramaten ba gaituzte.

Urdaiaga



EIDER JAUREGI

# Mila esker

Kaixo lagunak, berriz ere hemen gatoz gure auzo txiki honen berri emateko asmoz. Gehienetan zer kontatu ez dakidala ibiltzen naiz. Lerro gutxi batzuk idazteko buruari mila buelta eman eta zer idatzi ez dakidala gelditzen naizenean eguraldiari buruz idazten dut, Andoni Aizpuruari postua kendu nahian.

Azken hilabete hauetan auzotar berriak hasi zaizkigu kronikak idazten eta nik erretiratzea erabaki dut. Badira urte batzuk kronikak idazteko aukera eman zidatenetik, eta atsegin handiz egin dut, nahiz eta gehienetan presaka eta berandu ibili naizen. Ez duzue pazientzia makala ni bezalako kronika idazleak agoantatzen. Dena dela mila esker NOAUA!ri eta irakurle guztioi zuen arreta eta pazientziagatik.

Mila esker eta beste bat arte.



# Eskola Txikiak Bizirik

Aginaga



LONTXO ZUBIRIA

Herri txikietako eskoletan gelak beteak egoten ziren garaiak pasa ziren. Aginagako jendeen oroimenean daude gure haur denborako ikasketak: adin bereko haurrak elkarrekin ikasten, gure jolasak inguruetan...

Orain irautea ere ez zaie erreza suertatzen ari eskola txiki horiei. Gure auzoko eskolak ere ez du etorkizun erreza izango baina esperantzarako tokia ere behar omen da. Beraz, gure auzoko gazteak haurrak ekartzera animatzen badira ziur nago gure eskolak etorkizuna ziurtatuta izango duela.

Esperantza berriz ere eskuratu dutenak Zuberoako bi herri txikitako biztanleak dira. Larrainekoak eta Garaibikoak. Usurbilgo jende askok ezagutuko ditu bi herri horiek. Larraine Orhi mendiaren magalean dago, eta seguru handik pasa direla Irati aldean ibili diren asko. Garaibi berriz ezagunagoa izango dute azken urteotan Muskildi eta Urdiñarbe aldean hainbeste lagun dituzten usurbildarrek, Garaibi Urdiñarbe herriaren auzoa baita.

Bi herri horietako eskolak erdi hutsik gelditzen ari zaizkie eta beldur ziren eskolarik gabe geldituko ote ziren. Batez ere Frantziako gobernuak dirua aurrezteko dituen planetan holako ikastegiak isteko erabakia hartua daukalako. Baina hainbat mobilizazio egin ondoren, Frantziako lehen ministroak hitza eman omen du bi eskola horiek bizirik iraungo dutela.

Aginaga bezalako herri txiki batekoak garenoi, oso gertukoak egiten zaizkigu Larraine eta Garaibiko herritarrak dituzten arazoak. Beraz, hemendik zorionak eskolak zabalik mantentzea lortu duten bi herri horietakoei. Herri txikietako bizia dira eta eskolak.

# Udaberria

Zubieta



MIKEL BENGOETXEA

Badirudi, azkenean bukatu zaigula negua. Aurtengoa, inoiz baino gogorragoa izan dela iruditu zait, euria, jela, elurra, izugarrizko hotza… Ez da berehala bukatu, ez, baina azkenean, badirudi eguzkia hartzen ari dela bere tokia zeruan eta laster goxatuko ditu zokoak eta bazterrak, bazen garaia.

Udaberrian, gure herri txikiak beste itxura bat hartzen du dudarik gabe. Hasteko, laster hasiko dira “domingueroak” bere txandalarekin Zubietako bidea hartzen (eta batzuetan kotxeei traba piska bat eginez), hori ere esan behar da.

Bestetik, laster hasiko da errebote eta joko garbiko denboraldia, plaza librean, eta horrek ere, bizitza ematen dio plazari berari, eta bizitza herriari, dudarik gabe. Gaztetxo eta helduagoak, Zubieta Pilota Elkarteko pilotariak prest dira aurtengo errebote txapelketei aurre egiteko. Apirilean izango da hori.



Aurrerago hor izango ditugu San Juan sua, txokoak, festak, hau da, udan izan ohi diren ekitaldiak, urteko egun luzeenetan; orduan ahaztuta izaten ditugu neguan paso ohi ditugun “mixeriak”, etxeko zuloan sartuta egoten garenean hotza astindu ezinik.

## Luismari Ormaetxea, alkatea:
# "Aurrekontuen oinarrian ados gaude, baina akordioetara iritsi behar gara"

**Gai-zerrenda luzea zen. Ugarte, aurrekontuak, etxebizitza berriak, garraio publikoa... Galdera ugari egiteko gogoz ginen. Bi orriotan, Luismari Ormaetxea alkatearekin izandako solasaldiaren pasarte esanguratsuenak jaso ditugu.**

**Noaua! Martxoaren 10ean gaude eta ez dugu aurrekontuen arrastorik. Zergatik atzeratzen ari da hainbeste? Gutxi asko, noizko izango dira indarrean aurrekontu berriak?**

**Luismari Ormaetxea.** Egia da, aurrekontuak atzeratzen ari dira. Udaletxean dugun egoeraren isla da. Gutxiengoan gaude eta akordioetara iritsi behar gara. Oposizioan diren taldeak egoera honetaz baliatu nahi dira, zilegi den bezala. Alderdi gehienak ados gaude aurrekontuen oinarrian: Kale Nagusia berritu, futbol zelai berria egin, Eguzkitza auzoa egokitu, Ikastolako beharrak asetu... Obra nagusiekin ados gaude. Alderdi guztiekin ari gara hizketan, baina aurrekontuak EAJ-PNV eta PSOE-PSE-EErekin landu ditugu gehien. Batzuekin eta besteekin elkarrizketan jarraitzen dugu.

**N. Pentsatzen dut gauza asko aurrekontuak onartzeko zain izango direla.**

L. O. 2004ko aurrekontuak luzaturik ditugu, batez ere, funtzionamendu arrunta ziurtatzeko. Egoera honetan ezinezkoa da inbertsioetarako zehaztuta dagoen dirua gastatzea; transferentzia edo dirulaguntzetarako jarritako dirua ere ezin da erabili. Obra berrien asmoak ditugu geldirik: Kale Nagusiko urbanizazioa, futbol zelaia, Ikastola… Horretan bai eragiten ari dela.

2005eko aurrekontuetan, Atalluko garapenak pisu handia izango du. Seigarren unitateko pabilioira bideratuko dira Ugartondoko enpresak eta baita udal brigada guztiak ere. Obra garrantzitsua izango da eta aurrekontuan ere isla izango du. Honi loturik, Atalluko buruhausteak konponduta zeudela uste genuen arren, beste arazo bat topatu dugu. Hilabete honetako kontua da. Obrak aurrera doaz eta konturatu gara urbanizazio lanetan ez zegoela estolderia eta ur-zikinen bideratzea aurreikusirik. Konturatu garenez, aurreko korporazioak eta aurreko alkateak ur zikin horiek guztiak zuzenean erriberara botatzea erabaki zuten, azekien bidez ibaira isurtzeko. Sinesgaitza egiten zaigu, baina horrela onartuta zuten.

**N. Zein konponbide izan dezake?**

**L. O.** Azken konponbidea, Loiolako araztegira (depuradorara) ur-zikinak eramango dituen kolektoreari lotzea da; baina hori ez da gertatuko 4 urtetan gutxienez. Bitartean, bi aukera: Ur-zikinak ibairaino kanalizaturik eraman, horrek sortzen dituen propiedade eta iragan-eskubideak gainidituz, edota, pabilioi bakoitzean fosa bat egin eta fosa horietan ur horiei tratamendu berezi bat eman. Seguraski, bigarren aukeraren alde egingo dugu.

## Kultur Etxea, maiatzerako

**N. Noiz irekiko da Kultur Etxe berria?**

**L. O.** Aurrekontu berrien atzerapenak ez du Kultur Etxean eragingo. Enpresa eraikitzaileak esan digu lanak bukatuta daudela. Herenegun, ordea, Kultur Etxea zein egoeran dagoen ikustera joan ziren gure udal teknikoak eta esan digutenez azken ikutuak falta dira, ez dago guztiz bukatuta. Gainera, inguruko eraikinetan sorturiko kalteak konpondu behar dituzte. Horniketa-lanak ere, esleituta daude baina hori ere bukatzeko dago. Dena den, maiatza bukaera aldean inaugurazio-ekitaldi bat egin nahi dugu. Maiatzean kultur aste bat egingo da eta guk, nolabait, aste horrekin lotu nahiko genuke Kultur Etxe berriaren inaugurazioa. Eraikin horretako behe solairuan erakusketa-tokia izango da. Lehen erakusketan, Olarriondon eta Ugartondon izango diren promozioen berri emango da. Herriak ikusi dezan nola izango diren bi gune horiek.



"Aurrekontu berrietan pisu handia izango du Atalluko industriaguneak".

## Babes Ofizialeko etxeen zozketak, begibistan

**N. Olarriondon 409 etxebizitza eraikiko dira. Ugartondon, 192. Noiz egingo dira Babes Ofizialeko etxeen zozketak?**

**L. O.** Olarriondoko zozketa ekaina-uztailera aurreratu nahi dugu. Une honetan, oinarriak prestatzen gabiltza. Uda garai ona ez bada, irailean egingo genuke zozketa. Eta urte amaieran, edo 2006 hasieran, Ugartondoko babes ofizialeko etxebizitzenak. Horren berri emango dugu. Une honetan, zozketa oinarri horiek prestatzen gabiltza.

**N. Txaramuntoko obrak geldi omen daude. Arauzkoa den baino altuera bat gehiago eman nahi zaie etxeei. Hala al da?**

**L. O.** Bi promozio daude hor. Lehen promozioaren eraikuntza proiektua aurkeztu dute. Baina proiektua Arau Subsidiarioekin bat ez datorrela konturatu gara. Herritar batzuk ere etorri dira gai honekin kezkaturik. Enpresari proiektua egokitzeko eskatu diogu. Aurkeztu duten dokumentazioa ez dela egokia esan diogu enpresari eta berri bat prestatzeko eskatu diegu.

# “Akatsak egiteko libre ez gaude eta Ugarteri buruzko ikerketa bat eskatu dugu”

**N. Ugarte baserriarekin kezkatuta azaldu dira herritar ugari. Zuengana ere iritsiko zen kezka hori.**

**L. O.** Bai, halabeharrez, azken finean NOAUA! herritar guztiengana iristen da; eta guregana ere bai. Eraikin horri erabilpen berri bat emateko interesaturik zeuden batzuk eskaera egin zuten. Udaletxean egiten diren tramite guztiekin bezala, teknikoei egin zitzaien kontsulta, tekniko horiek ez zuten berebiziko arazorik ikusi eta baimen bat eman zen. Kezka sortu du, ordea. Ahots batzuk altxatu dira herrian eta esaten dena horrela den ala ez jakiteko, auzi hau birbegiratzen hasi gara. Eusko Jaurlaritzara, Foru Aldundiara jo dugu galdezka. Gu ere akatsak egiteko libre ez gaude eta ikerketa bat eskatu dugu. Ugarte eta beste baserri batzuen inguruko azterketa izango da. Esan behar da Ugarte ez dela Arau Subsidiarioetan balore izugarria duen eraikin bat bezala agertzen. Arau Subsidiario hauek aurreko korporazioak prestatu, aurkeztu eta onartu ditu. Gu behartuta egon gara azkenengo onarpena ematera, bestela herri osoaren garapen urbanistikoa blokeatuta geratzen zitzaigun. Birbegirapen honetan, aurkitu dugu Ugarte *iceberg*-aren punta dela, herriko baserri garrantzitsuenak inolako babesik gabe baitaude. Ejenplu nabarmenena, Arrillagaaundi. Hau baserri monumental horietakoa da, gutxi izango dira horrelakoak. Beste baserri bat: Ibarrolaaundi. Aurreko korporazioak ez zuen Arau Subsidiarioetan katalogaturik. Guzti honengatik, zera erabaki dugu: gauzak lasai hartu eta azterketa serio bat egitea. Arau Subsidiarioak berritzeko asmoa dugunez, eta ikusirik herritarren artean ze kezka dagoen gure ondarearen inguruan, neurri hauek denak berraztertu eta baserri hauei merezi duten babesa ematea erabaki dugu. Eta Arauetan txukun jaso, ez dadin aldrebeskeri bat gertatu. Bide batez, azken urteetan baserrientzat emandako birgaitze eta obra baimenak aztertzen ari gara irregulartasunik eman den jakiteko.

**N. Ugarte baserriaren auzia, beraz, azterketa horren menpe dago?**

**L. O.** Hor bi prozesu daude. Batetik, baserrien inguruko azterketa orokor hori (Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzarekin batera eginikoa). Eta Ugarte, bestetik. Azterketa bat eskatu da, bereziki, Ugarteko auziaren inguruan. Arkitektoen Elkargoari, Unibertsitateko irakasle batzuei txosten bat egin dezaten eskatu diegu, bereziki, ondare eta arkitektura ikuspegitik. Horren arabera jokatuko da Ugarten. Baserria balio handikoa bada, berriz aztertuko ditugu orain arte hartutako erabakiak. Txostenek diotena bestelakoa bada, Ugarteko auziak bere tramitearekin jarraituko du. Ez dezagun ahaztu ekimen pribatua dela. Ez da ondasun publikoa eta beraiek ere eskubide batzuk dituzte, eta horiek ere zaindu egin behar dira.


ARKITEKTOEN ELKARGORA ETA UNIBERTSITATERA JO DU UDALAK.

**N. Artzabal eta beste baserri batzuekin egin bezalaxe, ezin al du herriak bere egin?**

**L. M.** Ugartondoren garapenarekin, Ugarte baserriaren aldamenean kokatuko den 1.200 metro karratuko eraikina bereganatuko du herriak. Beraz, eraikina berri horrekin sortu daitezkeen behar publikoak beteko lirateke. Udalak ez du lokalik erosiko, gero erabilpenik ez emateko. Jakin gabe zer erabilpen izango duen, ez zait oso serioa iruditzen. Diru publikoa ardura gehiagorekin erabili behar dela uste dut.

# “Garraio publikoa herritarrengana hurbildu nahi dugu, baina Foru Aldundiak herritarrengatik urrundu nahi du”

**N. Autobus geltokiekin gauza bitxia gertatu da. Ibilbidea zehaztu gabe dago baina markesina ipini dute dagoeneko San Inazioko errotonda berrian.**

**L. O.** Garraio publikoa babestu eta indartu behar bada, garraioa herritarrengana hurbildu behar dela uste dugu. Foru Aldundiak, ordea, garraio publikoa herritarrengatik urrundu nahi du, herria, futbol zelaiaren ingurura luzatzen ari denean! Dauden lekuetan mantenduta ere, bus geltokiak gero eta urrutiago daude. Foru Aldundiaren planteamendua argia da: bus geltokiak errepide nazionalaren ondoan egon behar dute. Ez hori bakarrik. Bus geltokiak gutxitzearen aldekoa da.

Pleno batean onartu eta Diputazioari azaldu diogun proposamenean, bi geldiune egitea proposatu dugu. Bat, elizan; bestea, errotonda berri horretan. Atxegaldekoa, errotondara gerturatuko lizateke. Hau da, bai Donostiara doaztenak zein Oriora doaztenak leku berdinean geratzea proposatu dugu. Donostiatik datozenak, orain arte bezala, Kale Nagusitik sartuko lirateke. Eta Oriotik datozenak, Bizkarretik sartuko lirateke, eta elizan eta errontonda berrian geldituko lirateke. San Inazioko errotondatik berriz ere N-634a hartuko lukete. Diputazioak lehentasuna ematen dio denborari, zirkuitu hori osatzen pasako den denborari, gehiegi omen da. Guk, ordea, usurbildarrei zerbitzu on bat eman nahi diegu. Ika-mika batean gaude eta hainbat bilera egin ditugu. Impasse horretan, markesina hori jarri da irtenbide probisional gisa. Errotonda berriko markesina jartzea guk egindako eskaera izan da. Foru Aldundiaren eskumena baita garraio publikoa. Aldundiarengatik balitz, Etxe Aldiako zubi azpian jarraituko genuke eta nik ez dakit zein baldintzetan.

# Munduan zehar dabil Aitor Egileta

**Dagoeneko hilabete batzuk egin ditu etxetik urrun. Bidaiazale amorratua, orain arte opor egunekin konformatu behar izan du. Baina iaz, urte osoko eszendentzia eskatzea erabaki zuen. Esan eta egin. Bakarrik ekin zion bideari eta, gaur egun, Perun dago. Handik erantzun ditu gure galderak. Okerrik ez bada, abendurarte iraungo du gazte honen abenturak.**



AITORREN ESANETAN, "GARRANTZITSUA DA GOGOA IZATEA. ETA NOLA EZ, ILUSIOA, JAKINMINA ETA DIRUA"

**NOAUA! Oker ez banago, munduari itzulia emateko asmoarekin zabiltza. Noiz eta nola ekin zenion erronka honi? Nondik dator itzuli hau osatzeko egitasmoa?**

**AITOR EGILETA.** Egia esan, ez da azken momentuan pentsatutako gauza, ezta asko planeatutakoa ere. Bestetan ere, bidaiatzeko aukera izan dut; baina beti ere denboraldi laburretan. Badakizu, opor egunak mugatuak izaten dira. Bidaia hauetan beti ezagutu izan dut denbora luzez bidaiatzen aritu den jendea, eta horrek bultzatu zidan horrelako erabaki bat hartzera. Hala ere, lehengo urteko udara iritsi arte ez nuen horrelako erabakirik hartu.

> "Lehendabiziko aldia da astebete baino luzeagoz lagunik gabe bidaiatzen dudala. Baina sekula ez nago bakarrik!"

**N. Horrelako bidaia bati ekiteko, zer behar da? Zuk zenbat gauzekin ekin zenion bidaiari?**

**A. E.** Hasteko, garrantzitsuena, gogoa izatea. Eta nola ez, ilusioa eta jakinmina. Faktore garrantzitsu bat ere ez dugu ahaztu behar, noski, dirua. Aurrekoak lehendik ere banituen, eta dirua biltzeko aukera nuela ikusi nuenean, orduantxe ikusi nuen momenturik egokiena.

Lehendabiziko gauza motxila izan zen. Nola ez, beharrezko txerto eta medikamentuak hartu behar. Zenbait gida liburu eta arropa; asko ez, beharraren arabera erosteko aukera baitago. Urtebeterako ibilbidea prestatzeak eman zidan burukomin handiena.

**N. Zein herri igaro dituzu eta non zaude oraintxe bertan?**

**A. E.** Lehendabizi, Brasil aldera joan nintzen. Bertan Salvador de Bahiatik hegoaldera joan nintzen. Paraguai eta Uruguai labur-labur bisitatu ondoren, Argentinara jo nuen. Azken hau lehendik ere pixka bat ezagutzen nuenez, zuzenean hegoaldera joan nintzen, Ushuaiara. Hemendik, iparralderuntz Txile eta Argentinako mugetan alde batetik bestera ibiliaz, Patagonia osoa egin arte. Handik Ekuadorrera hegazkinez. Galapago irlak bixitatu eta gero, oihanean barrena, Peru aldera. Oraintxe Iquitos izeneko herri batetik idazten ari naiz, Amazonas ibaiaren ertzean.

**N. Zein izango da abentura honen hurrengo geltokia?**

**A. E.** Oraintxe, nire asmoa Perun barrena bidaiatzea da. Hemendik kosta aldera, Trujillo aldera abiatu eta gero hegoaldera, Arequiparaino. Gero, berriz ere, altiplano aldera, Cuzco bixitatu eta Boliviara pasa.

**N. Gutxi gora behera, noiz amaituko da bidaia? Noiz bueltatuko zara Usurbila?**

**A. E.** Ez da erraza hori jakitea. Nork daki, agian hemendik hilabetera, herri minak jota! Hegazkin-txartel berezi batez nabil bidaiatzen, eta honek urtebeteko epea du, beraz, abenduaren 3koa da azken eguna. Baina esan bezala, ez da seguru.

**N. Bidaia hasi aurretik, ilusio, desio jakin batzuk izan ohi dira. Zure aurrei-**

**kuspenak bete al dira ala gauzak beste era batekoak izan al dira?**

**A. E.** Lehendabiziko aldia da astebete baino luzeagoz lagunik gabe bidaiatzen dudala. Hauxe zen nere beldur handienetakoa. Lehenengo astea pixka bat arraroa egin zitzaidan, baino gero segituan ohitu nintzen bakardadera. Eta orain, berriz, sekula ez nago bakarrik! Beti aurkitzen dut jendea nere norabide berdinean doana eta ezagun asko egiten ari naiz. Era honetara, bertako jendearekin harreman handiagoa izaten ari naizela nabaritu dut.

> "Argentina, Singapur, Malasia, Indonesia, Txina, AEB... ezagutzeko aukera izan dut, baina beti hilabeteko opor mugatuetan"

**N. Abentura honen aurretik beste nonbait ibili al zara? Zeintzuk dira aurretik egin dituzun bidaiak, irteerak, espedizioak...?**

**A. E.** Betidanik gustatu izan zait bidaiatzea. Ez da lehenengo aldia Euskal Herritik kanpo nagoela. Lehen ere Argentina, AEB, Singapur, Malasia, Indonesia, Txina eta, nola ez, Europako zenbait herrialde eta Maroko ezagutzeko aukerak izan ditut, baino beti ere hilabeteko opor mugatuetan eta lagunekin.

## Aitorren bidaia kronikak, noaua.com orrian

Ordenagailuarekin batera bidaiatzen du Aitorrek. Aukera aprobetxatuz, bere abenturaren kronikak bidaltzeko eskaera egin diogu. Idazteko tartea hartzen duen bakoitzean, noaua.com-en zintzilikatuko ditugu Aitorren pasadizoak. Eta aldian aldiko hamaboskarian ere, jarraipena egingo diogu gazte honen ibilbideari.

# Hego Amerikatik abiatu zen eta Perun dabil gaur egun

Lehendabizi, Brasil aldera abiatu zen Aitor Egileta. Salvador de Bahiatik hegoaldera joan zen. Paraguai eta Uruguai labur labur bisitatu ondoren, Argentinan sartu zen gure protagonista. Zuzenean, Ushuaiara deritzon lurraldera jo zuen. Ondoren, Txile eta Argentinako mugetan, alde batetik bestera ibiliz, Patagonia osoa osatu zuen. Handik, Ekuadorrera iritsi zen hegazkinez. Galapago irlak bisitatu eta gero, oihanean barrena, Peru alderako bidea hartu zuen. Gure galderak e-mailez erantzun ditu, Iquitos izeneko herri batetik, Aitorrek elkarrizketa honetan dioen bezala, "Amazonas ibaiaren ertzetik".



"Galapagoetako lurreko dordoka erraldoia".



"*Piquero pata azul* deritzona, ez dakit nola den euskaraz!".



"Galapagoetan, Itsal lehoia titia hartzen".

# Giro polita 200 aleko ospakizunean

**Hotzaren beldur, Agerialdera pasa genuen herri bazkaria. Martxoaren 12an, ordea, udaberriko egun zoragarri horietakoa egin zuen. Kalerako giro hobea zegoen arren, Agerialden ere gustura ospatu genuen NOAUA! aldizkariaren 200 alea. Ederra bazkaria eta atsegina bazkalostea. Patxi Perez eta bere taldeari esker, giro atsegina osatu zen pilotaleku inguruan. Goiz partean, gaztetxo ugari bildu zen Udarregi Ikastolan, "Hitzak patriketan" ikuskizunaren inguruan.**



PATXI PEREZEK DANTZAN JARRI ZITUEN PLAZAN BILDUTAKO LAGUN GEHIENAK.



AZKENEAN, AGERIALDEKO JANTOKIAN EGIN ZEN HERRI BAZKARIA.

Korrika Batzordeak eta NOAUA! Kultur Elkarteak elkarlanean antolatu genuen martxoaren 12ko ospakizuna. Lerro hauen bidez, gure esker ona azaldu nahi diegu festa antolatzen lagundu ziguten guztiei: Xabi Tello eta Lanbide Hastapeneko ikasleak, Ikastolako jangelako langileak, Aginaga Sagardotegia, Urdaira Sagardotegia, Saizar Sagardotegia, Aialde Berri Sagardotegia, Aizpurua Okindegia, Aliprox Supermerkatua, Txiriboga Taberna, Txirristra Taberna eta Agirrezabal estankoa. Mila esker denei!

# Maider Alustiza izango da NOAUA!ko publizitate-arduradun berria

**Maialen Saezek publizitate-lanak utzi zituenetik, hutsunea genuen NOAUA! aldizkariko lan organigraman. Duela gutxi, aldizkari honetan bertan publizitate-arduraduna kontratatzeko lan deialdia egin genuen. Aurrerantzean, Maider Alustiza izango da lanpostu hori beteko duena.**

**NOAUA! Praktikari lanetan etorri zinen abenduan. Ondoren, publizitate-arduradun izateko lan deialdira aurkeztu zinen eta zu izan zara hautatua. Pozik heldu al diozu eginbehar berri honi?**

**Maider Alustiza.** Oso pozik. Bertan parte hartzea erronka da niretzat, jadanik maila ona duen aldizkaria hobetzea, elkarteko publizitatea, diseinua… Jende gutxik esan dezake gogoko duena egiten duela, eta nire kasuan, hala izango dela uste dut; gainera, oso giro polita aurkitu dut lanerako. Halaber, goizez soilik aritzea garrantzitsua da niretzat, arratsaldea alabekin emateko aukera izan dezadan.

**N. Jada lanean ari zara. Zeintzuk izango dira zure zeregin nagusiak?**

**M. A.** Lehenik eta behin, lurreratu egin behar dut. NOAUA!ren funtzionamendua ikusi, herria hobeto ezagutu, lana antolatu... Hainbat zeregin ditut lehentasun moduan, hauez gain, orain arteko publizitate diseinua ahal den heinean hobetu, berritu, bezero berriak erakarri, elkartearen irudian, diseinu mailan bederen, aurrerapausuak ematen saiatu eta abar. Bertako komertzioa ezagutzea izango da lehentasunetako bat.

**N. Donostiarra izanik ere, Usurbilen arituko zara lanean. Hori ere, erronka izango da zuretzat, ezta?**

**M. A.** Bai noski, gauza eta erronka berriek beti erakarri naute. Usurbil ezagutzen dut, baita bertako pertsona asko ere. Baina egia esan, bertako komertzioa gutxi ezagutzen dut, eta hori izango da nire lehentasuna. Donostiarra naiz hezurretaraino, antiguotarra hain zuzen, baina gogoko dut Usurbil eta bertako errealitatean parte hartu ahal izateko aukera.

**N. Aurrerantzean, baten batek iragarki bat jarri nahi badu, zer egin beharko du?**

**M. A.** NOAUA!ko bulegora etorri daiteke, Bordaberri 3 kalean, eta bertan adieraziko dizkiogu gure eskaintzak eta aukerak. Bestalde, telefonoz deitu dezake 943 360 321; edo e-postaz, mezu bat publizitatea@noaua.com-era bidaliz.



MAIDER ALUSTIZA JADA LANEAN HASIA DA.

## Martxoaren 19an, NOAUA!ko bazkideen Batzar Nagusia

2004 urteak utzi diguna aztertzeko eta, bestetik, 2005ak ekar diezagukena aurreikusteko garaia da. Bazkideen Batzar Nagusia, aurten, NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan bertan egingo da. Lehenengo deialdia, 10:15ean izango da. Bigarren deialdia, 10:30etan.

GAI-ZERRENDA:

1.-2004ko memoria, balantze ekonomikoa.
2.-2005eko egitasmoak, aurrekontuak.
4.-Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.
5.-NOAUA! astekariaren egistasmoa.
6.-Galdera/ erantzunak.
7.-Hamaiketakoa.

# Espetxea, Martutenetik Zubietara

**Espainiako Gobernuak Martuteneko kartzela dagoen lur saila emango dio Donostiako Udalari, han 350 etxebizitza eraikitzeko; trukean, Donostiako Udalak Zubietako 15 hektarea utziko dizkio Gobernuari, espetxe berria eraikitzeko. Akordio honetara iritsi ziren Mercedes Gallizo Espainiako Espetxe Erakundeetako zuzendaria eta Odon Elorza Donostiako alkatea.**

Juanjo Olaizola Zubietako alkatea da 2003ko maiatzaz geroztik. Olaizolak hauteskunde giroan kokatu du albistea: "Hasteko, Donostiako Plan Orokorra ez dago egina. Aurre-abantzean dago. Plan Orokorra bideratu eta gero, erakusketa publikoan jarri behar da plana, ekarpennak egiteko aukera zabaldu... Gauzak horrela, albiste hau hauteskunde giroan kokatuko nuke. Bestela ez dut ulertzen".

Aipatzekoa da kokapen-eremua Eusko Jaurlaritzarena dela. Lehengo astean irudikatu zen akordioan Espainiako Gobernua (Espetxe Erakundeetako zuzendaria) eta Donostiako Udala bakarrik ageri ziren. Odon Elorzak, hala ere, espetxe berria egiteko eta Martutenen etxebizitzak egiteko Eusko Jaurlaritzari elkarlanerako deia egin zion.

Kartzelaren kokagunea, beraz, Eusko Jaurlaritzaren lur-sailetan dago. Juanjo Olaizolak esan digunez, "lur horiek babes ofizialeko etxeak egiteko erosi zituen Eusko Jaurlaritzak. Baina definitu gabe dagoenez, edozer gauza jarri daiteke". Kartzela, esate baterako.

### Laster, kargu aldaketa

Bi urtez behin, kargu aldaketa egin ohi da Zubietako Herri Batzarrean. Laster, Imanol Azpirozek hartuko du alkatetzakargua. Albistea bera baino, Donostiako Udalaren jarrera da Imanolentzat kezkagarri: "tristeena da ez zaigula inongo aukerarik ematen. Zubietako Plan Estrategikoa garatu nahi genuen. 15 urteko epean Zubietarako zer nahi dugun definitu asmoz. Gure indarra nahikoa mugatua izanik ere, gurekin kontatzeko eskatu izan diegu. Baina guri ezertxo ere azaldu gabe, Donostiako Udalak Madrilekin adostu eta plazaratu du espetxearen kontu hau".

Zenbaterainoko kaltea izan dezakeen, ez dago garbi. Beraz, hori ere neurtu beharko litzatekeela uste du Juanjo Olaizolak. Hala ere, Donostian nahi ez dena Zubietara bota, susmo hori badute zubietar askok. Horregatik, herritarren artean etsipen puntu bat egon daitekeela aitortzen duen



IMANOL AZPIROZ ETA JUANJO OLAIZOLA, HERRI BATZARREKO KIDEAK.

arren, Herri Batzarrean lanerako prest daudela adierazi digu Juanjo Olaizolak: "guk etsipenik ez, borrokarako gogoz, gure iritzia plazaratzeko gogoz gaude".

### Zubietako urbanizazioa, amaitu gabe oraindik

6 hilabetekoa zen obra baina hiru urte pasa dira. Denbora honetan, akats asko egin direla diote Herri Batzarreko kideek: "Herri Batzarretik teknikoak kontratatu genituen eta, guk uste bezala, akats ugari egin dira. Horrek urbanizazioaren garestitzea ekarri du. Eta gainera, denboran luzatu da. Hainbeste luzatu, oraindik amaitu gabe daudela". Urbanizazioa amaitutzat ematen denean, Donostiako eta Usurbilgo Udalak zerbitzu guztiak asetzeaz arduratu beharko dira.

## Oharra

Ugarteri buruz idatzi artikuluan oker esana zuzendu nahi nuke.

Luis Peña Gantxegi arkitektoak berriki izan duen ezbeharraz, honen emazte Txarorekin mintzo nintzelarik, honi eskatu nion senarrari galdetzeko Ugarten egin lanaz zenbait xehetasun. Hala, ene harridurarako, jakin dut, Ugarte zahar-berritzeko, bai, Erramunek eskatu ziola -ondo gogoratzen dela Luis-, baina, berak, lan horiek egiteko, beste arkitekto bat gomendatu ziola, Donostiako Jose Antonio Pizarro, eta honen gain geratu zirela Ugarteko lanak. Nori berea da legea.

Honen berri nik ez jakitea zergatik zitekeen pentsatzen jarri eta, ohartu naiz, garai horretan, 1971-1972, buru-belarri sartuta genbiltzala *"Ez dok amairu"* taldean: lanik gehiena izan genuen urteak, gehi, taldean zatiketa ere orduan gertatu zela, eta honek ekarri zizkigun buruhausteak, herriko gorabeheretatik aldenduxe eduki ninduten. Hortik nonbait aldaketa horren berri ez jakitea. Halere Ugarten egin lanen egokitasunaz esanei eusten diet.

Barkatu ene okerra.

**JosAnton Artze**







# Haur Eskola, matrikulazio garaian

**Matrikulazioa egiteko garaia iritsi da Usurbilgo Haur Eskolara. Informazio gehiago Haur Eskolako bulegoetan jasoko duzue, goizero, 9:30etik 10:30era. Izen-emate epea, dena den, apirilaren 29an amaituko da.**

Haurra matrikulatzeko zer egin behar da? Oso erraza da. Dokumentazio hau aurkeztu behar da: Errolda agiria eta kontu korrontearen zenbakia (baita titularraren izena ere).

Apirilaren 29an amaituko da matrikulazio garaia. Gogoan izan, Haur Eskolaren plaza kopurua mugatua dela. Matrikulazio eskaerak eskolako plaza kopurua gainditzen badu, zozketa publikoa egingo da. Zozketa hori maiatzaren lehen astean egingo litzateke.

Haur Eskolaren inguruko informazio gehiago bulegoan bertan eskura daiteke (goizero, 9:30etik 10:30era) edo honako telefono zenbakira deituz: 943 37 40 61.



MATRIKULAZIOA OSATZEKO ERROLDA AGIRIA ETA KONTU KORRONTEAREN DATUAK AURKEZTU BEHAR DIRA.

### Apirilaren 7an, elikaduraren inguruko hitzaldia Haur Eskolan

Elikadurari buruzko hitzaldi sorta antolatu du Haur Eskolak. Apirilaren 7an, Malen Moya izango da hizlaria. Medikuntza naturalean eta nutrizio energetikoan aditua, hitzaldia eskainiko du Fraisoroko irakasle den Jesus Calvillorekin batera. Arratsaldeko 18:00etan, Kalezargo Haur Eskolan bertan.

## Ingelerako udalekua, Udarregi Ikastolan

Udarregi ikastolak "Enjoy English" ingelerako udalekua antolatu nahi du. Ekainaren 29tik uztailaren 26ra arte iraungo luke udalekuak eta Udarregi Ikastolan bertan egingo litzateke, goizez, 9:00etatik 13:00era. Bi talde: Bata, HH3, LH1 eta LH2ko ikasleentzat; bestea, LH3, LH4, LH5 eta LH6ko ikasleentzat. Irakasleak: Monitore natiboak. Prezioa, ikasle kopuruaren arabera (g.g.b. 280 euro). Irakaslea bere etxean hartzen duenak, ez du matrikularik ordainduko. Izena emateko epea martxoaren 18an amaituko da. (Udarregiko idazkaritzan, 943 361 216).

**Oharra:** *Otsailaren 18ko NOAUA!n Udarregi Ikastolak eginiko iragarkian akats bat zegoen. Sortutako eragozpenengatik barkamenak eskatu nahi dizkiogu Ikastolako zuzendaritzari.*

# Aste Santuan itxita izango da KzGunea

**Aste Santua dela eta, Usurbilgo KzGunea itxita egongo da martxoaren 21etik 29ra, biak barne. Apirilean izango diren ikastaroak hauexek dituzue.**

**Oinarrizko Internet (20 ordu)**
Apirilak 4-15, 16:00-18:00 (Euskaraz).
Apirilak 4-15, 18:00-20:00 (Gaztelaniaz).
Apirilak 18-29, 18:00-20:00 (Euskaraz).

MINTEGIAK

**Bidaiaren eskubideak,** Martxoak 30 asteazkena, 18:00-20:00 (Euskeraz).

**Astebukaera Euskal Herrian,** Martxoak 31 osteguna, 16:00-18:00 (Euskaraz).

**Via-Michelinekin Bidaiatu,** Apirilak 1 ostirala,16:00-18:00. (Gaztelaniaz).

AZTERKETAK

IT Txartela, Apirilak 11, 18:00-20:00.



IRUDIAN, AZKEN IKASTAROAN PARTE HARTU DUTEN IKASLEAK.

Lorazaintza
Sortak
URTINEA
urtinea@euskalnet.net
Loreak
Koroak
Landareak
San Esteban
943 362 255
943 366 054 fax

gorriti
EDARITEGIA
Kafe berezia!
San Esteban kalea, 8
Telf: 943 36 27 70

Zubiaurrenea, 3

Iturgintza - Gasa - Berokuntza
J. r z
Bizkarra 1, 1.esk.
37 29 37 - 659 602789

ARRAINDEGIA
PELLO

# Martxoaren 20an egingo da euskal presoen sakabanaketa salatzeko mendi ibilaldia

**Sakabanaketaren aurkako mendi ibilaldia egingo da datorren martxoaren 20an. Etxerat!ek antolatuta, bi izango dira aldarrikapen nagusiak: sakabanaketa politikarekin amaitzea eta preso zein senideen eskubideak errespetatzea.**

Lasarte-Oriako Xirimiri elkartean aditzera eman zutenez, "80. hamarkadan sakabanaketa politika martxan jarri zenetik ez da aurrerapausorik eman. Egiazko irtenbideak bilatzeko ordua da eta politikariek urratsak eman behar dituzte, gizarteak sakabanaketaren aurkako jarrera azaldu baitu". Aurkezpenean, astero-astero "bizitza arriskuan" jartzen dutela azaldu zuten senideek eta Euskal Preso Politikoen Kolektiboa itxialdia egiten ari dela gogorarazi nahi izan zuten.

Etxerat!ek aurreratu duenez, mendi ibilaldia egingo den egun berean EPPKko kideak bere protesta haratago eramango dute eta gose-greban sartuko dira. Ekitaldi hori antolatzeko Orioko, Astigarragako, Añorgako, Usurbilgo, Hernaniko, Andoaingo eta Lasarte-Oriako mendi taldeen laguntza jasoko dute. Beraiek ardauratu dira ibilbidea aukeratu eta markatzeaz. Prentsaurrekoan aurreratu dutenez, mendizaleak Oriotik eta Astigarragatik abiatuko dira eta Teresategin amaituko da mendi martxa. Era berean, mendi ibilaldi honetan omenaldia egingo zaie Argi Iturralderi, Iñaki Balerdiri eta Matilde Arribillagari, "sakabanaketa politikak erahil dituen senideei". Ibilaldia amaitzean, Aitor Goikoetxeak harriarekin egindako eskultura jarriko dute Teresategin.



ETXERAT!EK ANTOLATU DU MENDI MARTXA ETA LAGUNTZAILEEN ARTEAN DA USURBILGO ANDATZA KKE.

### Usurbilgo plazara goizeko 11:00etan iritsiko da

Martxoaren 20ko mendi ibilaldia Oriotik eta Astigarragatik abiatuko da. Bi adarrek bat egingo dute Teresategin. Oriotik 8:00etan abiatuko den martxa 12:15ean igaroko da Andatzatik. Nahi izanez gero, Andatzan egin daiteke bat mendi martxa honekin. Teresategin amaituko da ibilaldia, 14:30ean.

# Urnieta nagusitu zen herri kirol ikuskizunean

Urnietarrak nagusi izan ziren Sagarrondotik jaialdiko herri kirol desafioan. Sagar biltzen eta garraiatzen, harria jasotzen, txinga lasterketan, lokotx-bilketan eta sokatiran lehenak izan ziren urnietarrak. Bigarren tokian Astigarragako taldea geratu zen, ingudearekin eta gizon proban marka onena lortu eta gero. Hirugarren tokia usurbildarrentzat izan zen, eta laugarrena, Hernaniko taldearentzat. Errebantxa maiatzean egingo omen da baina ez Urnietan, Usurbilen baizik.

Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkartekideek eskerrik beroenak helarazi nahi dizkiete Sagarrondotik Jaialdira bertaratu ziren milaka lagunei. Kontzertuak izan ziren bi egunetan zehar, 15.000 lagun igaro ziren Hernanin jarritako karpetatik.

Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkarteko kideek eskerrik beroenak eman nahi dizkiete egitasmo guztia aurrera ateratzearren lagundu duten guztiei.



SOKATIRAN PARTE HARTU ZUEN TALDEA DUZUE HAUXE. URNIETAKO TALDEA NAGUSITU ZEN SOKATIRAKO FROGAN ETA BAITA HERRI ARTEKO LEHIAN ERE.



# HIKA HIKA HIKA HEMEN DATOR KORRIKA! HIKA HIKA HIKA HEMEN DATOR KORRIKA!

HAUR HEZKUNTZAKO HAURROK ERE KORRIKA OSPATU DUGU, ETA HAUEXEK DIRA EGINDAKO IBILBIDEAK; EZETZ LEKU BAKOITZETIK FRONTOIRAINOKO BIDEA TOPATU!







Udarregi Haur Eskola, 5 urte

PATRi
JATETXEA
- Eguneroko menuak
- Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Tel.: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14


MAHUKA


Zendoia
Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

M N
CENILL
Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

TABERNA-JATETXEA
NTXET

N • I
MIST

# NOAUA!ko LEHIAKETA!!



Noaua! Kultur Elkarteak argitaratutako liburua:
**"Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"**
**Noaua! Kultur Elkarteko kamiseta**
**Herriko zortzi postal zoragarri**

Lehiaketako galdera hau asmatzen baduzue sari zoragarri hau irabaz dezakezue!
EZETZ ASMATU!!!

**Nor izan zen Noaua! Kultur Elkarteko lehen lehendakaria?**

1) SAIOA FERNANDEZ
2) ANA AIZPURUA
3)ANDONI SAGARNA

Erantzunak bidaltzeko azken eguna MARTXOAK 25
Noaua! hamaboskaria, Bordaberri 3 Eguzkitzaldea, 20170 Usurbil (Gipuzkoa), Noaua! Kultur Elkarteko buzoian edo e-posta: erredakzioa@noaua.com

200. lehiaketako erantzuna:
Zein egunetan iritsiko da KORRIKA Usurbilera?
**MARTXOAK 16ean**

Irabazlea **IDOIA ARRATE** izan da.
"ILEON" eta "MARTXAUNDI 4" musika cd-ak irabazi ditu.
ZORIONAK! Jaso ezazu saria Noaua!ko egoitzan.





| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | * IZENA / Adar ukaldiak | | Urruti / Ohikoak | | Musika nota / Katilu txikia | | Larriago bihurtu / Esaten du | | Errepikatuz gorotza |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | Hosto / Salbu | | | | | Bizkaieraz, iratzea / Ikas eta Ari | | | |
| Itunak / Hatz apaingarriak | | Errukari / * DEITURA | | | | | | | | | Ate ingurua |
| | | | | | | | | | Kasik / Landare txiki | | |
| Beharbada / Ut! | | | | | | Marokoko hiriburua / Omen | | | | | |
| | | | | Infusio mota / Egunaren atal | | | | Nafarroako ibaia / Jardun | | | |
| H2O / Su biziak | | | Gauza / Urtearen erdian | | | | Sail / Abantzu | | | | |
| | | | | | | Nafarroako basoa / 1000 | | | | | |
| Kez bete | | | | | Al-Andalusko herritar musulmana | | | | | | |

IRUDIAN, Zubietako itzultzailea eta idazlea.
Soluzioa: 22. orrian.

## Eusko Tren-en tren ordutegia

| Donostia | Usurbil | Zarautz |
|---|---|---|
| 05.47* | 06.03* | 06.20* |
| 06.17* | 06.33* | 06.50* |
| 06.47* | 07.03* | 07.20* |
| 07.17 | 07.33 | 07.50 |
| 07.47 | 08.03 | 08.20 |
| 08.17* | 08.33* | 08.50* |
| 08.47 | 09.03 | 09.20 |
| **09.52/** | | **10.21/** |
| 10.17 | 10.33 | 10.50 |
| 10.47 | 11.03 | 11.22 |
| 11.51 | 12.05 | 12.20 |
| 12.17* | 12.33* | 12.50* |
| 12.47 | 13.03 | 13.20 |
| 13.17* | 13.33* | 13.50* |
| 13.47 | 14.03 | 14.20 |
| 14.17* | 14.33* | 14.50* |
| 14.47 | 15.03 | 15.20 |
| 15.17* | 15.33* | 15.50* |
| 15.47 | 16.03 | 16.20 |
| 16.17* | 16.33* | 16.50* |
| 16.47 | 17.03 | 17.20 |
| 17.17* | 17.33* | 17.50* |
| 17.47 | 18.03 | 18.20 |
| 18.17* | 18.33* | 18.50* |
| 18.47 | 19.03 | 19.20 |
| 19.17* | 19.33* | 19.50* |
| 19.47 | 20.03 | 20.20 |
| **20.21/** | | **20.48/** |
| 20.47 | 21.03 | 21.20 |
| 21.47 | 22.03 | 22.20 |

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

| Zarautz | Usurbil | Donostia |
|---|---|---|
| 06.08* | 06.24* | 06.39* |
| 06.38* | 06.54* | 07.09* |
| 07.08* | 07.24* | 07.39* |
| 07.38* | 07.54* | 08.09* |
| 08.08 | 08.24 | 08.39 |
| 08.38* | 08.54* | 09.09* |
| 09.08 | 09.24 | 09.39 |
| 10.05 | 10.24 | 10.39 |
| 11.08 | 11.24 | 11.39 |
| **11.22/** | | **11.47/** |
| 12.08 | 12.24 | 12.39 |
| 12.38* | 12.54* | 13.09* |
| 13.08 | 13.24 | 13.39 |
| 13.38* | 13.54* | 14.09* |
| 14.08 | 14.24 | 14.39 |
| 14.38* | 14.54* | 15.09* |
| 15.08 | 15.24 | 15.39 |
| 15.38* | 15.54* | 16.09* |
| 16.08 | 16.24 | 16.39 |
| 16.38* | 16.54* | 17.09* |
| 17.08 | 17.24 | 17.39 |
| 17.38* | 17.54* | 18.09* |
| 18.08 | 18.24 | 18.39 |
| 18.38* | 18.54* | 19.09* |
| 19.08 | 19.24 | 19.39 |
| 19.38* | 19.54* | 20.09* |
| 20.08 | 20.24 | 20.39 |
| 21.08 | 21.24 | 21.39 |
| **22.07/** | | **22.32/** |
| 22.38 | 22.54 | 23.09 |

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

## Eguneko goardiako farmaziak

**Martxoak 18, ostirala**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Martxoak 19, larunbata**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Martxoak 20, igandea**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Martxoak 21, astelehena**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Martxoak 22, asteartea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Martxoak 23, asteazkena**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Martxoak 24, osteguna**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 25, ostirala**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 26, larunbata**
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 27, igandea**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 28, astelehena**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 29, asteartea**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Martxoak 30, asteazkena**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Martxoak 31, osteguna**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Apirilak 1, ostirala**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Apirilak 2, larunbata**
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Apirilak 3, igandea**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte.

*GAUEKO GOARDIAKO FARMAZIAK*
*Urte osoan, gaueko goardiako farmazia guztiak Hernanin egingo dira. Maria Jose Chucla, Kardaberaz Kalea 48, Hernani (943 55 17 93).*

2005eko egutegi osoa **noaua.com** helbidean

## Eusko Tren-en autobus ordutegia

| Donostia | Urbil | Usurbil | Zarautz |
|---|---|---|---|
| 07.40 | | 08.05 | 08.25 |
| 08.00 | | 08.25** | |
| 08.00 | 08.25 | 08.35 | 08.55 |
| 08.40 | | 09.05 | 09.25 |
| 09.00 | 09.20 | 09.30 | |
| 09.00 | 09.25 | 09.35 | 09.55 |
| 09.40 | | 10.05 | 10.25 |
| 10.00 | 10.25 | 10.35 | 10.55 |
| 10.40 | | 11.05 | 11.25 |
| 11.00 | 11.25 | 11.35 | 11.55 |
| 11.40 | | 12.05 | 12.25 |
| 12.00 | 12.20 | 12.25** | |
| 12.00 | 12.25 | 12.35 | 12.55 |
| 12.40 | | 13.05 | 13.25 |
| 13.00 | 13.20 | 13.30 | |
| 13.00 | 13.25 | 13.35 | 13.55 # |
| 13.40 | | 14.05 | 14.25 |
| 14.00 | 14.20 | 14.30** | |
| 14.00 | 14.25 | 14.35 | 14.55 |
| 14.40 | | 15.05 | 15.25 |
| 15.00 | 15.20 | 15.30 | |
| 15.00 | 15.25 | 15.35 | 15.55 |
| 15.40 | | 16.05 | 16.25 |
| 16.00 | 16.25 | 16.35 | 16.55 |
| 16.40 | | 17.05 | 17.25 |
| 17.00 | 17.25 | 17.35 | 17.55 |
| 17.40 | | 18.05 | 18.25 |
| 18.00 | 18.20 | 18.30 | |
| 18.00 | 18.25 | 18.35 | 18.55 |
| 18.40 | | 19.05 | 19.25 |
| 19.00 | 19.20 | 19.25** | |
| 19.00 | 19.25 | 19.35 | 19.55 |
| 19.40 | | 20.05 | 20.25 |
| 20.00 | 20.20 | 20.30 | |
| 20.00 | 20.25 | 20.35 | 20.55# |
| 21.00 | 21.20 | 21.25 | 21.45 |
| 21.00 | 21.25 | 21.35 | 21.55 |
| 22.15 | 22.35 | 22.45 | 23.05 |
| 22.00 | 22.25 | 22.35 | 22.55 |
| 22.30 | 22.55 | 23.05 | 23.25 |
| 00:00 | | 00.25 | 00.45 |
| 02:00 | | 02.25 | 02.45 |
| 04.00 | | 04.25 | 04.45 |
| 06.00 | | 06.25 | 06.45 |

**Aiaraino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

| Zarautz | Usurbil | Urbil | Donostia |
|---|---|---|---|
| 06.45 | 07.05 | | 07.30 |
| 06.45 | 07.05 | 07.10 | 07.30 |
| 07.15 | 07.35 | | 08.00 |
| 07.45 | 08.05 | | 08.30 |
| 07.45 | 08.05 | 08.15 | 08.40 |
| 08.15 | 08.35 | | 09.00 |
| 08.45 | 09.05 | | 09.30 |
| 08.45 | 09.05 | 09.15 | 09.40 |
| | 09.30 | 09.35 | 10.00 |
| 09.45 | 10.05 | | 10.30 |
| 09.45** | 10.05 | 10.15 | 10.40 |
| | 10.30 | 10.35 | 11.00 |
| 10.45 | 11.05 | | 11.30 |
| 10.45 | 11.05 | 11.15 | 11.40 |
| 11.45 | 12.05 | | 12.30 |
| 11.45 | 12.05 | 12.15 | 12.40 |
| 12.45 | 13.05 | | 13.30 |
| 12.45 | 13.05 | 13.15 | 13.40 |
| | 13.30 | 13.35 | 13.55* |
| 13.45 | 14.05 | | 14.30 |
| 13.45 | 14.05 | 14.15 | 14.40 |
| | 14.30 | 14.35 | 15.00 |
| 14.45 | 15.05 | | 15.30 |
| 14.45 | 15.05 | 15.15 | 15.40 |
| | 15.30 | 15.35 | 15.55* |
| 15.45 | 16.05 | | 16.30 |
| 15.45 | 16.05 | 16.15 | 16.40 |
| | 16.30 | 16.35 | 17.00 |
| 16.45 | 17.05 | | 17.30 |
| 16.45 | 17.05 | 17.15 | 17.40 |
| 17.45 | 18.05 | | 18.30 |
| 17.45 | 18.05 | 18.15 | 18.40 |
| 18.45 | 19.05 | | 19.30 |
| 18.45 | 19.05 | 19.15 | 19.40 |
| | 19.30 | 19.35 | 20.00 |
| 19.45 | 20.05 | | 20.30 |
| 19.45 | 20.05 | 20.15 | 20.40 |
| 20.45 | 21.05 | 21.15 | 21.40 |
| 21.15 | 21.35 | 21.40 | 22.00 |
| 21.45 | 22.05 | 22.15 | 22.40 |
| 23.15 | 23.35 | | 00.00 |
| 01.15 | 01.35 | | 02.00 |
| 03.15 | 03.35 | | 04.00 |
| 05.15 | 05.35 | | 06.00 |

*Aiatik dator
Asteburutan
Soilik larunbata gauez
Larunbat lanegunetan

## Zubieta-Donostia TST autobusak

**ASTEGUNETAN**
**Zubieta-Donostia**
7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)
**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* /9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

**LARUNBATETAN**
**Zubieta-Donostia**
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)
**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

**JAI EGUNETAN**
**Zubieta-Donostia**
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15,30(T)/ 21:35 (T)
**Donostia-Zubieta**
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

## Datorren NOAUA!

**Apirila**

| As. | Ar. | Az. | Os. | Ost. | La. | Ig. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | (1) | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | (15) | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | (29) | 30 | 31 |

Hurrengo alea

## Bai esan?

- Udala ........ 37 19 51
- Udaltzaingoa ........ 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak ........ 37 01 48
- Anbulategia ........ 36 20 13
- Udarregi ikastola ........ 36 12 16
- Udarregi (Agerialde) ........ 36 38 95
- Oiardo kiroldegia ........ 37 24 98
- Zumarte ........ 37 15 94
- Etumeta ........ 37 20 01
- Taxi geltokia ........ 36 21 78
- D.Y.A. ........ 46 46 22
- Ertzantza ........ 112
- Suhiltzaileak ........ 112
- Larrialdiak ........ 112
- Anbulantziak ........ 112
- Gure Pakea ........ 37 32 28
- Gure Elkartea ........ 37 17 51
- Arrate Egoitza ........ 36 63 40
- Eusko Tren ........ 47 09 76
- Noaua! aldizkaria ........ 36 03 21
- Bake epaitegia ........ 37 23 36
- Oa farmazia ........ 37 60 76
- Iturralde farmazia ........ 36 33 95
- Zubietako Batzarra ........ 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) . 47 09 76

# Oharrak !

## Etxebizitza

-Usurbil edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. Tf: 645722874.

-Kaxkoanpisu bat alokatzen da. 115m2, 4 gela, 2komun, sala eta sukaldea. Abala eskatzen da. Interesatuak, 943361730 (20:00-22:00).

## Salerosketak / garajeak

- Vespa Iris 200 motorra salgai. SS-AL matrikula. Salneurria 600 euro. 656721158.
-Baserriko babarrunak saltzen dira. Kiloa 10 euro. 600901150.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943458284.
- Ford Fiesta salgai. Diesel 1.8, SS-AV. Egoera onean. 637 135 088.
- Aparkalekuak dauzkat salgai prezio oso onean Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3 zbkan. 607905859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172010 (Jon).

## Lanpostuak

### Lan-eskaerak

- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667694469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Horrelako lanetan aritua. 626641155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskilerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. Interesatuak deitu 690 784 113 telefono zenbakira.
- Oporretako, ospakizunetako, edota edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Informazio gehiago nahi izan ezkero deitu 943- 555835 edota 617-242660 telefonora.

### Lan-eskaintzak

- Orioko ileapaindegi batean estezizista bat behar da. Interesatuak deitu 943832729.
- Astelehenetik ostiralera, eguerditan pertsona bat behar dugu Antxeta jatetxean lan egiteko. Interesatuak deitu 943370344 telefonora.
- Usurbilen taberna bat traspasatzen da. 620 259 672.
- Ikastolen Elkarteak uztailean burutuko diren euskal, ingeles eta frantses udalekuetarako begiraleak behar ditu. Beharrezkoa: 18 urte beteta izatea, euskara menperatzea eta begirale titulua izatea. Izen emate epea: martxoak 11. Non: Ikastolen Elkartean, 94 4354340 /www.bieikastola.net.

## Bestelakoak / Galdutakoak

- Oporretarako, astebukaeretako edo despedidetarako txaletak alokatzen ditugu Peñiskolan. Itsasora zein mendira begira dauden txaletak. Gune berdeak, piszina, teniserako pistak, sauna, squach, eta umeentzako parkea. Interesatuak: 964491022 edo 677780680.
- Errepide ondoko autobus geltokianKarpeta txuri bat galdu dut. "Aulas Kutxa" hitzak ditu azalean. Aurkitu duenak deitu 943364733 zenbakira.
- Ekonomika sukalde bat saltzen da (labea ere badu). 6 urte ditu, ondo zaindua. Prezioa negoziatuko da. 617242660 / 943361751 (Nerea).
- Bideokamara bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodea barne. Gutxi erabilia berria dago. 943376902 - 665749615 gauez.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. 943 55 18 32.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615755762
- Astean zehar eski-begirale izateko jendea behar du Ikastolen Elkarteak. 943444702.

# Txerrimunik ordainetan !

## Jaiotzak

**- Imanol Uribe Unanue,**
Otsailaren 23an.

**- Ainhoa Rodriguez Martinez,**
Otsailaren 26an.

*Informazio iturria: Usurbilgo Bake Epaitegia*

**Oharrak - Txerrimunik ordainetan doaneko atalak dira**
NOAUA! Kultur Elkartea - Borda Berri, 3
Eguzkitzaldea 20170 Usurbil
erredakzioa@noaua.com



**Zorionak Garazi!**
Otsailaren 25ean bost urte egin zenituen. Ainitze, Nagore eta gurasoen partez, muxu handi bat!



**Zorionak Maria!**
Martxoaren 19an egingo dituzu 2 urte. Zorionak zure lehengusu Aintzane, Nagore, Garazi eta osaben partez.



Martxoaren 20an bion urtebetetze eguna denez,
**Zorionak Joxe Mari!**
**Zorionak Ainhoa!**
Egun ona opa dizuegu. Gonbidapen bikoitzaren zain, muxu handi bana!

OSU
Telf: 943 36 61 21
Alperroburu, 1
ITURGINTZA
K m
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97
ZUMET MENU K
ZUMET J TETXE

## Agenda

**Martxoak 18, ostirala**

-Euskal Presoak Euskal Herriratzea exijituz, kontzentrazioa arratsaldeko 20:00etan.

**Martxoaren 20an, igandea**

-Mendi-martxa Oriotik Lasartera. Usurbildik goizeko 11etan igaroko da.

## KzGunea

IKASTAROAK

**OINARRIZKO INTERNET (20 ordu)**

1. Apirilak 4-15, arratsaldez, 16:00-18:00 (euskaraz).
2. Apirilak 4-15, arratsaldez, 18:00-20:00 (gaztelaniaz).
2. Apirilak 18-29, arratsaldez, 18:00-20:00 (euskaraz).

**AZTERKETAK**

**1. IT Txartela.** Apirilak 11 astelehena, 18:00-20:00.

**MINTEGIAK**

**1.**"Bidaiari gisa eskubideak", martxoak 30 asteazkena, arratsez, 18:00-20:00 (euskaraz).

**2.** "Astebukaera Euskal Herrian", martxoak 31 asteazkena, arratsez, 16:00-18:00 (euskaraz).

**3.** "Via Michelinekin bidaiatu", apirilak 1 ostirala, arratsez, 16:00-18:00 (gaztelaniaz).

**Oharra:** Aste Santua dela eta, Usurbilgo KzGunea itxita egongo da: martxoak 21-29, biak barne.

## Lehiaketa



| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ✪ | E | ✪ | U | ✪ | L | ✪ | L | ✪ |
| | | | A | D | A | R | K | A | D | A | K |
| | | | ✪ | O | R | R | I | ✪ | I | R | A |
| ✪ | R | ✪ | E | R | R | U | K | I | O | R | ✪ |
| E | R | A | Z | T | U | N | A | K | ✪ | I | A |
| ✪ | A | G | I | A | N | ✪ | R | A | B | A | T |
| U | T | I | K | ✪ | T | E | A | ✪ | E | G | A |
| ✪ | U | R | ✪ | G | A | I | ✪ | A | L | O | R |
| G | A | R | R | A | K | ✪ | I | R | A | T | I |
| ✪ | K | E | T | U | ✪ | M | A | I | R | U | A |

## Musikaren txokoa

# "Punk not dead"




Lendakaris Muertos Iruñeko punk talde berria duzu eta oraintsu lehendabiziko diskoa palzaratu du.

Ironia ardatz, Lendakariek zeresan handia eman zuten euren maketako kantuak zirela-eta, "Gafas de pasta (con las de Ruper basta)" edo "El problema vasco"ren moldeko lelo bikainekin. Orain, kalean da Lendakarien lehen disko ofiziala, guztira, 23 kantuz osatua. Bertan, euren bizkortasuna eta ideia argiak berresten dituzte, "Policía sí"tik hasi eta "Dame punk y dime tonto" dibertigarriarekin bukatu arte.

Taldeko kideek diotenez, gaiak betikoak dira, «baina buelta emanda». Ironikoak, garratzak, probokatzaileak. «Gai politikoak eta sozialak landu ditugu», dio Aitorrek, taldeko kantariak: «kale borroka, euskal arazoa, drogak, bortizkeria, sexua... Hau da, bizitza bera osatzen duten gaiak».

## Egin kontu

### Buruntzaldeko Jatetxeen Gida, eskura

Buruntzaldeko Jatetxeen Gidak 112 jatetxe bildu ditu. Usurbilen, zehazki, 29 izan dira gidaren ekimenarekin bat egin duten jatetxeak. Argitaratu diren aleak, guztira, 25.800 izan dira. Horietako 2.500 ale Usurbilen banatuko dira.

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo jatetxeak biltzen ditu gidak. Herri horietako mapak jaso dira eta baita jatetxeen inguruko datu praktikoak: jatetxearen izena, helbidea eta telefonoa.











Noaua !!

www.noaua.com

# ABERASTU ZAITEZ! EGIN ZAITEZ BAZKIDE




## ZAPATAK ERABILIAZ GASTATU EGITEN DIRA, HIZKUNTZA ERABILIAZ ABERASTU EGITEN DA!



**Herrietan euskararen erabilera bermatzeko lanean ari gara dozenaka euskara elkarte**

- Lagunarteko giroan, euskarazko jarduerak antolatzen ditugu, euskarari gero eta leku handiagoa zabalduaz herrian.
- Euskaraz bizi nahi dugun jendea biltzen gara bertan.
- Partaide bakoitzak ahal duen neurrian eta nahi duen jardueratan hartzen du parte.
- Euskal Herri osoan 9.000 pertsona baino gehiago gara honetan ari garenok, kolore eta pentsamolde guztietakoak.

## ZEIN DA HIZKUNTZA ETA ZAPATEN ARTEKO EZBERDINTASUNA?

## BAZKIDETZA ESKARIA

Izen deiturak:

Jaiotze data:

Adina:

Bizibidea:

Sexua:

NA zenbakia:

Helbidea:

Posta Kodea:

Herria:

tel:

e-maila:

Bankotxea:

Kontu korronte zkia (20 digitoak):

**Bazkide KUOTA: 36€ (Uztailean kobratuko da kontu korrontetik)**

**Informazio gehiago: 943 360 321**

# EGIN TXOTX! SAGARDOTEGI GARAIAN




Txotxetik irten zera
kristal fiñ garbira,
saltatu dezu illun
betikan argira;
atoz ederra, atoz,
gauzkatzu begira,
eragiteko baso
zaudenari jira.

*Ramon Artola. "Sagardoaren grazia eta beste bertso asko"*




